

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 26 enpresa-proiekturi laguntza eman die Moderna Ekintzailearen Bekaren bitartez

*Programa ekintzailtza berritzailea sustatzeko bideratuta dago Moderna Planaren eredu ekonomikoaren barnean*

Lunes, 25 de junio de 2012

Nafarroako Gobernuak 26 enpresa-proiekturi laguntza eman die [Moderna Ekintzailearen Beka](#)ren bitartez; haren bigarren edizioa gaur goizean amaitu da.



Moderna Ekintzailearen Beka lortu duten ekintzaileak.

Beka horiek ekintzailtza sustatzen dute [Moderna Plan](#)ean Nafarroarentzat diseinatutako eredu ekonomikoaren esparruan. Beka 18.000 eta 24.000 euro artekoa da eta onuradunek prestakuntza ere jasotzen dute [IESE](#)k emandako enpresa-kudeaketan, proiektuaren tutoretza [Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroaren \(Cein\)](#), programa hori kudeatzen duena, eta lanerako espazio bat Zentro horretako instalazioetan bakarrik erabil daitekeena. Edizio honetan, beka jasotako proiektuen prestakuntza-prozesuak [ekintzailtza arin](#)aren metodologia sartu du eta bekaren baldintzek enpresa-kudeaketan pertsonalizatutako prestakuntza-ibilbide bat hartu dute barnean; gainera, beka jasotako bi proiektuk programako babeslekide diren [Everis](#) eta [Mtorres](#) enpresak izan dituzte aholkulari.

Moderna Ekintzailearen Beken programako bigarren edizio horren itxiera-ekitaldian izan dira: Nafarroako Gobernuko Enpresa eta Berrikuntzako zuzendari nagusi Jorge San Miguel; Moderna fundazioko zuzendari nagusi Cernin Martínez eta Cein-eko zuzendari-gerente Pablo Romera, bai eta deialdi honetan beka jasotako ekintzaileak ere.

### Enpresa berritzaile berriak

Enpresa gisa sortu eta programan parte hartutako proiektuak honako hauek dira: [Whitebiotech](#) (aholkularitza bioteknologikoa); [Bull4all](#) (online bankuko plataforma); [San Fermín Store](#) (San Fermín markari lotutako arropa eta produktuen diseinu eta merkaturatzea); [Laquinta R](#) (errotaziozko moldaketa bidezko plastikozko produktuen fabrikazioa); [Vivo Activo](#) (Internet-eko aplikazioa berrogeita hamar urtetik gorakoentzako informazioarekin, zerbitzuekin eta sare sozialarekin); [Rodmon](#) (equipo eolikoaren birziklapena eta errekupeazioa); [Synctra](#) (parke eolikoetako inpaktuaren azterketak); [Bisonia](#) (Europako bisonteen errekupeazio-eta interpretazio-zentroa); [Vortex](#) (ikerketak-proiektuak finantzatzeko webgunea); [Navarra Fishing Adventures](#) (Nafarroako arrantza-

oporraldien antolaketa) eta [Laundrylabs](#) (skateboard-en fabrikazioa).

Datozen asteotan ere honako enpresa hauek sortuko dira: *Logística Inversa* (automobilaren abiadura-kaxa automatikoen birfabrikazioa); *Ecom Innovaciones Agrícolas* (nekazaritza-laboreak babesteko biomolekuletan egindako aplikazioak); [Dime Tecnología para todos](#) (Pertsona ezinduentzako gailu mugikorretarako aplikazioak) *Last Mile* (txikizkako salmentarako teknologia berriak); *Nekomic* (komiki digitala irakurtzeko ataria); *Geosac* (energia aurrezteko ingeniari-tza); *Poweryou* (autokontsumoko energia elektriko propioa sortzeko eguzki-sistemak); eta *Prymia* (pertsontentzako eta enpresentzako soluzio teknologikoak).

Beste sei proiektuk beren jarduerari helduko diote urte honen amaieran: *Nitio Tech Solutions* (azalera bertikaletarako garbiketako robota); *Edukatech* (mahai elkarreragileak eta berariazko software-a hezkuntzarako); *Fertextha* (ongarri eta igeltsu-oinarridun deribatuen fabrikazioa laborantzan aplikatzeko); *Envirhom* (hondakinak automatikoki sailkatzen, xehatzen eta trinkotzen dituen etxeko edukiontzi baten fabrikazioa); *Lamilla Cycles* (Internetez saltzeko bizikleten birfabrikazioa); eta *AcústicaFácil* (soinu eta dardaren munduari lotutako on-line bidezko prestakuntzako webgunea). Ez dago hain aurreratuta *Nuevo Origen* (adin nagusikoei laguntza emateko bizitokia) ekimena.

Programari ekin aurretik, *Enigmedia* (komunikazioetarako segurtasunezko soluzioak) proiektuak bekari uko egin zion. Bestalde, programan zehar, antolakuntzak baja eman die lau negozio-ideiari beka abian delako: *Tripku* (bidaien sare soziala); *Cybian BioIT* (B+G+Iko kudeaketa-zerbitzuak enpresa biomedikuetarako); *Azidotasunaren hegazkortasuna hautematen duen kortxoa*; eta *Boldpin* (sare sozial geolokalizatua).